

“EZ DOK AMAIRU” taldea berriz Donostian

Maiatzaren azkenengo igandean, Donostiako «Principe» antzokian, «Union Artesana» elkartearen ehun urte-betetzearan eratu diran jaialdie-tako bat ikusi genduen. Jaialdi hori berezia eta interesgarria zitzaigun. Bertan, EZ DOK AMAIRU taldeko hiru kantariak parte hartzen zuten: Benito Lertxundi, Lurdes Iriondo eta Mikel Laboak.



Talde batekoak izateala ematen dizkien kidetasuna eta elkartasuna...

Jaialdi horrekin, aipatu ditugun kantariak egin duten aurrerakoa. Ez genduen usie Benito, Lurdez eta Mikel hain sendo arkizterik. Kantakera aldetik, musika aldetik eta ikuskari aldetik gutxi ez goera firmen daude-la, iruditu zitzaigun. Lehengo freskotasunik galdu gabe, teknika aldetik asko ondu dira. Nahiz eta nerbioek hasieran embargo egin, oso ongi kantatu zuten. Lertxundiren ja-betasuna, Lurdexen abots segurua eta

Oso garbi nabarmendu zen hiru kantariak egin duten aurrerakoa. Ez genduen usie Benito, Lurdez eta Mikel hain sendo arkizterik. Kantakera aldetik, musika aldetik eta ikuskari aldetik gutxi ez goera firmen daude-la, iruditu zitzaigun. Lehengo freskotasunik galdu gabe, teknika aldetik asko ondu dira. Nahiz eta nerbioek hasieran embargo egin, oso ongi kantatu zuten. Lertxundiren ja-betasuna, Lurdexen abots segurua eta

Laboaren grazi herrikoia ez dira noiz nahi elkartuak ikusten. Gainera, eta batez ere, talde ba-

tekoak izateak ematen dizkien ki-detasuna eta elkartasuna esimatzen dira. Elkarren ondoan lana egiten dutelarik, badakite nondik nora da-biltzan eta gauza nola prestatu behar dan. Horregatik dira jaialdi bati ba-tasuna eta kalitate amateko gauza, faltukeria edo iheskeriarik gabe.

Ez dugu uste kantari hauen nerria ematen duen beste asko dagoenik, eta gauza batek poztutzen gaitu be-reziki: Ez dok amairu, lanaren eta zentzuaren bitartez egoera ixar bat superatzea ahal dela demostratu izateak. Esamesen eta giro txarren gai-netik: anekdota guzien gainetik.

Laster prestatua izango omen dute azken denbora hauetan lantzen ari diren Luskari berria. Ea noiz ikus-ten ditugun gure aurrean lan berri horrekin. Mereziko duelakoan gaude.



BAIONAKO ASTEA

uztailaren 2.tik 8-ra

Laster dugu BAIONAKO ASTEA. Antolatzaileak ba dabilta lanean. Arazaok zuzenki aurrera eramate-ko, Sekretaritzak bat eratu zen Baio-nan egin genduen biltzar batean. Aste horren zenbait xehetasun ja-kin nahiz, Sekretaritzaren buru egi-ten duanari urreratu natzaio.

—Zeintzuk dira antolatzaileak?
—“Eskualdunen Biltzarra”, “Ikas” eta “Fededunak” taldeekin bat egi-nik. Eta Asteari segurtasun osoa ematearren, Baionako Ayuntamen-tuaren ofizialtasuna lortu nahi izan dute.

—Zer da Aste honekin batez ere lortu nahi zenuketena, jakiterik baldin badago?

—Jakiterik ba ote dagoen? Nola ez! Gure asmoa, hauxe dugu: eus-kaldunok elkar ezagutu dezagula, elkarren berri jakin, egun batzu-tan elkarrekin bizi, eta lan-taldeak sortu. Eta nolabaik giro hau ser-tze-ko, jan eta lo, denek batean eginen dugu.

—(Hau silika). Garestia izango ote zaigu Aste heri?

—Ez, ez. Mila bat peseta inguru Aste osoa. Ez da askorik ezta?

—Ikutu dezagun orain Astearen mami. Programa erabat egina ahal duzue?

—Bai. Konferentziemaiile batzuen erantzunak falta arren, dagoane-ko erluna dago dena. Asteak, bi za-ti nagusi ditu, bakoitzarentzat hiru egun direla: lehenengo hirua eus-kal kulturari buruz; eta azkene-koak, erlijioari eta gizarteari buruz. Huskeriak huskeria, hau dugu:

KULTURA EGUNAK (2-3-4)

- Andereño Errandona
- Andere Itzaina
- Piarres Dokelar
- Jakes Etxeberri
- Luis Mitxelena
- Patxi Altuna

LITERATURA

- (Teatro):
- Piarres Laffitte
- (Poesia):
- J. Haritschelhar

HISTORIA

- Narbaitz
- Aizpurua

- Esparza
- EKONOMIA
- Gurutz Ansola
- Ramuntxo Kanblong
- J. L. Davant

IGANDEA (5)

— Goietik, Ipar aldea ezagutze-ko eskursio, “ceicercio” eta gutzi.

— Iuntzean, ARGIA dantza-tal-dearen saioa.

ERLIJIO-GIZARTE

EGUNAK (6-7-8)

FIEDEA ETA KULTURA

Karlos Santamaria.

ENKUESTAREN AGERPENA

(Enkuesta hau Ipar aldean egina izan da, apaizei, monjei, irakas-kintzari eta Ekintza Katolikoari buruz. Parte-hartzaileak: STADE-CO, Xarritton, Iraola, Luberriaga).

KATIXIMAREN (KATEZISMOA) PROBLEMATIKA

Euskal Herri osoko arduradunak.

—Bai gaiak eta bai adierazleak, nere ustez, deigarriak dira. Jendeak erantzungo dizuelakoan nago.

—Horixe nahi genduke, bada. Jendea etor dedila, batez ere gaz-te jendea. Horien zain gagoz. Esan-dakoa nahiko ez balitz bezala, bes-te mila ikuskizun eta eginkizun ere izango da: Euskal Liburu eta Diskoen Feria. “Ez dok amairu” eta Ipar aldeko kantari profesio-nal saioak; behar bada, kantari ber-rien konkurtsioa, etabar...

—Nun dira batzarrak?

—Musée Basque (rue Mareng-ko).

—Besterik baduzu?

—Errege bat egin nahi nioke Baionara joateko asmoa eta ama-tsa duanari: LEHENBAILEHEN BERE IZENA EMAN DEZALA!

Zuen izen hori ZERUKO ARGIA-RA bertora bidal dezakete, hone-la jarriaz:

ZERUKO ARGIA

(Baionako Astea)

Ogüendo, 22 - SAN SEBASTIAN

—Hala eginen dugu, bai. Baio-nan elkar ikusiko. Bitartean (eta gero) zori ona izan dezazutela.

JOAN MARI TORREALDAY

«Caja de Ahorros Municipalak argiratutak

Gipuzkoar erriaren gain liburuaren aurkezpena

Ekainak 11, Caja de Ahorros Munizipalaren Kultur-Gelan, gipuzkoar errien gain idatzitako 35 liburuaren presentazioa izan genduen. Istori-liburu auek Caja de Ahorros Munizipal-ak argiratu ditu, berak antolatutako konkursu baten ondoren.

Nikolas Lasarte jaunak, Caja'ren zuzendari, liburu auek 100.500 izango dirala esan zigun, gipuzkoar erri bakoitzak lan auek izan ditzan. Konkursoa antolatzean eta lan onenak argiratzearan, Cajak berriro, bere Gipuzkoaz duen preokupazioa azaltzen du.

Jose de Arteche'k, itzaldi labor eta bete batean, liburu auen esanaiaz itzegin zuen. Gizona unibersal edo mundu guztiokoa da, baiñan ortara-ko bere errian izan bear ditu sus-traiak. Gizonak, bere inguruan di-tuen gauzak eta jendeak ezagutzean, unibersalagoa da. Eta bere erria obe-

to ezagutzeko, gizonak erri orren iz-kuntza bearra du. Arteche'k Gipuz-koan izan diran istori idazleentzako itz goretsia izan zituen, eta orain argiratu diran liburuk gure erria ezagutzeko aurrerapen galanta dira-la esan zuen. Argiratu diran lanek 3.300 orri dituzte denen artean.

Manuel Lekuona jaunak, istori idazleek arkitzen dituzten zailtasun-eg itzegin zuen. Aro bakoitzak bere ikus spedia du, eta batzuetan onen gain idazleak aaztu egin dira orain arte. Beste batzuetan sentimentuak ez di-tuzte aparte jarri, bearra izan ezke-ro. Gipuzkoaren istoria ez zan asi-tenenago idazti lanekin, eta askotan idazleak monumentu eta instituzioak billatu bear ditu.

Beren itzak bukatzean, Kultur-gela betetze nuzten entzuleek Arteche eta Lekuona jaunak asko txalotu zituzten.

MITXELENA

BITXITEGIA - ERLOJUTEGIA

Euskaldunak eskatu salneurriak (deskuentoa)
Avda de Francia, 1
I R U N

O A R - S O R T A

AITA AREITIO

«Mixiñuek» auki geinuzan gerrate aurreko urtean gure errian. Aita Areitio egin eban gogo-jardunen emoteille. Ogei ta amabost urte joan dira ordutik gaurarte.

Pare-bat urte dirala ikusi neban barriro Aita Areitio, Loiolan. Etxura txarrik ez eukan, baiña arnasa-estua bai, eta asko nekatzan zala idazte-orduan, esan eustan.

Durengarra zan jaiotze Areitio eta Ariznabarreta'ar Peli iosulagundikoa. Loiolan il da, epail-martiaren ogei ta sejan.

Xabier deunaren bizitza bat idatzi eban, erderaz. Asko ikasia zan gai onetan, eta Aita Schurhammer jakin-tsuaren adiskidea, Ikastek Alemanian eginikoa zan Aita Felis.

Euskeraz be idatzi eban. Barrion-Ebanjelioak euskeratu ebazan, eta «Jesusen Biotzaren Deya» aldizkarian argitaratu.

Olerki batzuk be argitaratu dauz euskeraz Deustuko aldizkari orretan. Eta eskutuz asko... asko, euskeraz. Euskeria landua eta argia, Aita Areitioa.

Ameriketean mixiolari ibilia, Bi bidar. Iosulagundi-koen ikasle-gazteen erakusle eta zuzendari be izan zan. Aita Arrupe egon zan ikasle beragaz.

Zarata aundi barik joan jaku Aita Peli. Bere euskaldutasunaren barri ondo dakik nik. Benetako euskal-tzailea izan da.

Agurrik ez, geroarte baiño, adiskide.

ARRIURDIN

ORDIZIA


ERREDIZAK — MERKENAK, ONENAK ETA APAIÑENAK ARKITUKO DITUZUE EMEN — 1933'garrenean legetua —

ERAKUSTEGIAK

ORDIZIA'n: Lantegi-ondoan.

ERNANI'n: Izpizua, 15 eta 19'an — Urrutizkiña: 50 0 54

VILLAFRANCA DE ORIA: Urrutizkiñak: 88 11 16 - 88 11 92



IROVISA

“LAND-ROVER”
eta “DOMMER”

BERIBILLEN ORDEZKARIA

Lau gurrpilletara eraman-indarra.

Chasis oso sendoa ta iraupen aundikoa.

Indarra arteko iru tini.

Aurrerako zortzi abiada.

Ortik du LAND ROVER'EK

Lan guzietarako, bearkizun guzietarako, alde guzietarako aukera.

Lantegiak: ANOETA - (Tolosa-Gipuzkoa)